

PLaza

Heriotzak erakusten duena

Nafarroan azken urteotan egin diren indusketa garrantzitsuenetan bildutakoa eta ikasitakoa jaso dute Nafarroako Museoko 'Lurra arina izan dakizula' erakusketan.

ALBERTO BARANDIARAN
Iruñea

Nafarroa da, indusketei dagokienaz, Euskal Herriko lurralderik joriena, kantitateari begiratu gero behintzat bai. Nafarroako Museoa antolatutako *Lurra arin dakizula* erakusketan, azken 20 urteotan egindako indusketa garrantzitsuenak bildu dituzte, haien azalpenarekin eta han aurkitutako ostilamendu eta objektu sorta-ekin.

7.000 urteko garaia hartzen du erakusketak. Argitaratutako katalogoak, bestalde, indusketa garrantzitsuenen azalpen zabala agertzen du, adituek eginga. Ondo-koak dira bost adibide, ia garai guztiak hartzen dituztenak eta aurkitutakoaren lagina direnak.



Aizpea: lehen lurperatzea

Aizpeako aztarnategia (Aribe) da Nafarroako zaharrena. K.a.-ko 5.550 urtekoa dela zehaztu dute adituek eta, nahiz eta ondolik igarotzen den errepideak aztarnategi osoa aztertzea galarazi duen, 14.000 hondakin inguru eta landutako 550 objektu aurkitu dituzte. Gehienak, geziak, puntak eta eguneroko bizitzarako tresnak dira. Gehienak, Aizpeatik 12 kilometro-ara dagoen Artxilondoko harrobetik hartutako silixez eginak. Batzuk, hala ere, Urbasa, Ebro arroa eta Ipar Euskal Herriko kostaldean bildutako materialak direla ondorioztatu dute arkeologoek. Halaber, Mediterraneoko moluskuekin egindako bitxiak ere aurkitu dira. Horrek harreman sare indartsua adierazten du.

Baina interesgarriena, seguru asko, 30 urteko emakume baten hi-




Gizaiki baten hezurdura, *Lurra arin dakizula* erakusketan. LANDIER F. ARROAIE / ARGAZKI PRESS

lobia da. Gorpua bere baitara bilduta ageri da, eskuineko aldearen gainean jarrita, kobaren barruko aldean, eta harri multzo baten azpian. Bera da, hain zuzen ere, Nafarroan aurkitutako lurperatze zaharrena.

Azterketa antropologikoak erakutsi du abila zela, ama behar-bada. Eta giharrek frogatzen dutela bide malkarretan ibiltzera ohitua dagoenaren osaera zuela, fruituen bilketarako beharreko zuenarena alegia. Hau da, indarra baino, abilezia eskatzen zuen jardunetan trebea zela. Hortzak eta hezurren azterketak, bestalde, frogatu du dieta landareak zirela nagusiki, eta animalietatik eratorritako produktua ia ez zituela kontsumitzen. Badirudi, eta antzeko aztarnategietan aurkitutako hondakinetatik ondorioztatu denez, sexuaren arabera diskriminazioa zegoela Aizpean. Hau da: emakumeak eta gizonak desberdin elikatzen zirela. Bestalde, hortz eta hezurretako minak antzeman di-

tuzte. Ez dago ostilamendurik. Koban bertan lurperatu izanak talde hauen mugikortasuna erakusten du, bestalde.



Paternanbidea: ostilamenduak

Paternanbidean, gizartearen funtsezko aldaketaren zantzuak aurki daitezke lurperatzeetan: ehiztari eta fruitu biltzaileari utzi eta ibarretara iritsi diren lehen gizakien ohiturak hasten dira azaltzen. Paternanbidea, Iruñerrian, lau gorpuzkin multzo azaleratu dira. Zein baino zein garrantzitsuagoa.

Lehenak ostilamendu «ikusgarria» dauka, hura aztertu duten adituen arabera. Gehienak nork bere burua ederresteko dira. Mas-

korrez egindako zintzilikarioak daude, eta hezur eta harrizko ale batzuk ere bai. Bigarren lurperatze multzoan, eskumuturrekoak eta zintzilikarioak. Horietako batek 406 harri ale ditu, harrizkoak, hezurrezkoak eta maskorrez eginak. Ondoan, ontzi bat, hiru biribil-lez hornitua.

Beste multzo batean, bi lagun helduren gorpuzkinak azaldu ziren. Horietako bati, garaiera erabat ezohikoa kalkulatu diote adituek, 1,78 metro luze zela ondorioztatu baitute. Hezurretan hainbat arazo zituela ere antzeman diote. Ondoan, 20-25 urteko emakume baten hezurdura ageri da. Hura ere garaia, 1,68 metro, hor nonbait. Badirudi hilobia berriro zabalduta zela bigarren gorpua sartzeko. Horrek egiten du harrigarri.



Castejon: emakumeak

Arguedas inguruan, Bardearen muturrean, 1989tik 1994ra hainbat indusketa egin ziren. Haietan, 87 gorpuzkin hondakinak agertu ziren, gehienak ostilamendua ondoan zutela. Gehienek ontzi batzuk zituzten, batez ere erritoren lotutakoak. Halaber, apaindurako bitxi ugari azaldu ziren. Hain zuzen ere, horregatik, apaindurako objektu asko agertu direlako, hilobi hau, Ebroko arroaren gainetik dagoena, emakumeentzat erabiltzen zela ondorioztatu dute.

Ostilamenduaren artean, metalzkoa da aipagarriena. Brontzez egindako piezak dira gehienak, baina badira burdinazkoak ere. Urrezko, bi. Paparrezko orratzak daude, botoiak eta grapak. Eskumuturrekoak daude, eta eraztunak eta belarririk gabekoak. Paparrezko orratzaren erabilerari dagokionez, garai honetan hasten da haren erabilera ugaltzen eta areagotzen. Gehienak laukizuzenak dira, erdian gakoa dutenak. Batzuetan biribilezko apaindura antzematen da. Bi, triangeluarrak dira. Fibulak asko dira, eta ileari eusteko urrezko pieza bat ere berreskuratu dute. Antzeman dute, halaber, eraztunak eta belarririk gabeko oso ohikoak zirela, eta egunero erabiltzen zituztela.



Iturissa: Baskoia

Aurizberri inguruan, Iturissa izeneko nekropolia landu izan da 1985etik. Iturissa Ptolomeo geografo greziarrak aipatu zuen, eta baskoien lur eremuen barruan kokatu zuen. Hau zen, hain zuzen ere, baskoien hiririk iparraldekoa, hondakin erromatar oso gutxi ziren inguruan hain zuzen ere. Hemengo hondakinek, beraz, balio eta interes berezia dute. Badira gerrikoak, batzuk Baco eta Mercurio jainkoen omenez eginak. Hainbat txanpon berreskuratu ziren, Nerón, Lucilla eta Antonino Pioen irudiekin. Hiletak nola egiten ziren ere ondorioztatu dute. Erraustu eta gero, gorpuzkinak xehetu egiten zituzten, eta gero kutxatxoan sartzen zituzten. Hori, gero, hilobian uzten zuten. Geziak eta armak, berriz, emakumeen gorpuzkinen ondoan agertu dira. Hori ere bitxitzat jo dute adituek.



Gazteluko Plaza: musulmanak

Lur azpiko aparkalekua egiteko proiektua zela eta, 2011etik 2004ra indusketa zabal eta garrantzitsua egin zen Iruñeko Gazteluko Plazan. Erakusketan agertzen dutenez, agertutako *maqbara* izan zen garrantzitsua, hau da, hilobi musulmana. Denera, 190 hilobi inguru azaleratu ziren, oso sotilak denak. Adin ezberdinekoak denak. Horrek esan nahi du talde zabala osatzen zutela, bertan kokatua. Luze bizi izan zirela Iruñean.

Adituek uste dute VIII. mendean Iruñean finkatutako soldadu taldea eta bere inguruak izan zitezkeela, Islama Iruñera iritsi zen garaikoa hain zuzen ere. Hortzen azterketaren ondorioz, berebereak zirela ondorioztatu dute. Baina ez dute baztertu beranduago ere Iruñean gelditzea.

>> abarandiaran@berria.info